




Empar

Pineda Erdozia

Gorputzak hala eskatua

Kattalin Miner

ARGITARATZAILEA:

Hernaniko Udala / Berdintasun Arloa

EGILEA:

Kattalin Miner

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Asteazkenak (Jon Aranguren eta Maddi Zumalabe)

IRUDIAK:

Asteazkenak (Jon Aranguren eta Maddi Zumalabe)

INPRIMAKETA:

Antza Komunikazio Grafikoa

ISBN: 978-84-122188-0-0

Lege gordailua: D 00990-2020

2020ko urria

Empar

Pineda Erdozia

Gorputzak hala eskatua


Kattalin Miner

Aurkibidea

EMPAR PINEDA ERDOZIA

Gorputzak hala eskatua

HITZAURREA	9
Mataderiatik	11
Madrileko saltsara	15
Damurik ez	19
Guztia zegoen hitz egiteko	23
Goitik beherako lesbiana bat	29
Nik ere abortatu dut	35
Jaso egin behar da	41
Abenduak 26 fundazioa	43
Aitortza keinuak	45



HITZAURREA

2018ko apirilean, Hernaniko emakume talde batek Emakume hartu hitza eta ekintza ekimena antolatu zuen. Bertan, herriko emakumeek egindako borrokak omendu eta transmisioa ziurtatzeko hainbat jarduera egin ziren. Han izan zen Empar Pineda ere, omendu gisa, baina hitza ahoan, jaioterriarekin beti hain abegikor eta esker oneko. Ekimen horren bueltan etorri zen proposamena ere, Berdintasun Kontseilutik: “Empar Pinedaren bizitza eta jarduna jaso egin behar ditugu, nolabait”, eta halako proposamenak ez dira errefusatzen errazak.

Empar Pineda 1941ean jaio zen Hernanin, eta handik aurrerakoak borroka eta aldarrikapena oinarri duten joan-etorriak izan dira. Askorentzat izan da erreferente. Askorentzat eta arrazoi askorengatik: frankismoaren aurkako borroka, borroka komunista, borroka feminista, abortu-eskubidearen defentsa, askatasun sexuala... Erreferente bat nahi duenak, badu nondik heldu.

Emparrek, ordea, badu beste nolakotasun bat, hain zuzen, gertutasun hori. 2018ko amaieran, Bartzelonako bere etxean hartu ninduen, eta zinez eskuzabala izan zen elkarrizketan. Luze aritu ginen, zukua atera nahian, eta berak, detaile guztiak unean biziko balitu bezala akordatzeko dituen. Era berean, argi utzi zuen bere bizitza ez zaiola apartekoa iruditzen; “gorputzak eskatu diona” egin duela, ez besterik.

Hernanitik Bartzelonara egin duen bidean hamarkadak pasa dira, eta hamarkada horietan hamaika borroka. Elkarrizketa zuzen honetan, irakurleak, Empar Pinedaren bizitzaren nondik norakoetan bidaiatu ez ezik, garai eta testuinguru desberdinetan murgiltzeko aukera izango du.

Idatzi honen helburua da bideak urratu eta ireki zituzten emakumeen ahots, borroka eta bizitzetako bat jasotzea, eta gure memoria kolektiboan haren pisua gordetzea. Gozatu beza irakurleak, elkarrizketatzaileak gozatu duen beste.

1

Mataderiatik

Udaberriak bere onenean hartu nau Bartzelonara iritsi bezala. Kaleetako bero epelak Empar Pinedaren etxerako bidea oinez egiteko gonbitea egin dit. Hogei minutu pasata, Emparren egongelan gaude biok, infusio bat eskuetan, kaleko giroa etxera sartzen uzten duen leiho zabal baten ondoan. Itzulinguru gehiegirik gabe, ekiteko keinua egin dit, atsegin.

Elkarrizketarekin hasi aurretik, buruan dabilkidan galdera egin diot, ezinbestekoa, eta lotsa apur bat ere ematen didana. Izan ere, gertukoei “Amparo” entzun izan diet deitzen, “Amparito” ere bai, baina leku gehienetan “Empar” izena irakurri dut, baita Ampar entzun ere. Nola deitu behar diodan galdetu nahi diot ezeren aurretik. Gozo barre egin dit galdera entzundakoan. “Normala da nahastea, neska! Hernanin Amparo edo Amparito nauzu, logikoa da. Baina Franco hil eta berehala Kataluniara etorri nintzen bizitzera –1975. eta 1976. urteen artean–, eta katalanez Amparo Ampar da, eta idatziz Empar. Beraz, batzuek Ampar

deitzen didate, beste batzuek Empar, Hernanin, adibidez, Amparo edo, gertukoenek, Amparito. Azken batean, Empar herrialde honek (Kataluniak) egin zidan harrerari egindako keinua da, eta gustuko dut. Gainera, kurioa da, NANean Amparo daukat; aldiz, nik Empar sinatzen dut, eta arazorik ez daukat”.

Gauzak argi utzita, Empar deituko diodala esan diot, eta berak, “ederki” esan dit, nahi dudana moduan deitzeko, ez duela zentzu horretan identitate arazorik, eta elkarrizketan zehar ohikoa bilakatuko den barre lasaiaz ekin diogu.

Nonbaitetik hasi behar eta hasierara jo dugu. Bizitzaren zati handi bat herritik kanpora eman badu ere, Empar Pinedak beti izan du lotura oso estua Hernanirekin. Haurtzaroko garaiez galdetu diot, 50eko hamarkada horretako oroitzapenak jaso asmoz, baina baita garaiko herriaren argazki bat egin eta bizimodua biltzeko intentzioz ere.

Zer den haurtzarotik oroitzen duen lehen gauza, zein den lehen irudia, horixe jakin nahi dut. Pentsatzeko tarte handiegirik hartu gabe, hala ekin dio: “Nik oroitzapen oso onak ditut haurtzaroaz, bai horixe. Gu mataderia atzean bizi ginen, aita tratantea zen eta, gainera, harategiko haragia antolatzen zuen; beraz, haurtzaroa zerri eta behiak nola ekartzen zituzten ikusten pasa nuen”. Etxebizitzari dagokionez, hala jarraitu du: “Banako etxe batean bizi ginen, ez zen egun villa deitzen dioguna, zeren ez zen, baina terraza handi bat genuen eta asko gozatzen genuen bertan jolasean”.

Banekien baserriarekin harreman berezia zuela, eta berak ere segituan hartu du ahotan: “Egia da denboraldiak egiten nituela baserrian, amaren gurasoekin, hain zuzen. Amona emakume erabat abegikorra zen, % 100, eta aitonak eta berak aparteko bikotea osatzen zuten. Aitona oso handia zen eta amona, aldiz, txikia; “i”-a eta puntua ziruditen”. Nabari da Empar gustura ari dela aiton-amonez mintzatzen, eta entzuna diodanez aitonarekin harreman berezia zuela, hari buruz galdetu diot. “Aitona, aitona izateaz gain, nire aita besoetakoa nuen, El Patas deitzen zioten; petrikiloa zen bera, eta gogoan dut zein gustura laguntzen nion hari lanera”. Aitonarekin zuen harremana berezia dela argi dago, baita estima handia ziola ere. Pasarte batekin definitu du hari zion begirunea: “Beti euskaraz egiten zuen, beti. Izan ere, behin, Hernanin, osteguneko ferian, norbaitek barre egin omen zion gaztelaniaz aritu zen batean, eta orduz geroztik ez zuen inoiz gehiago gaztelaniaz egin, inoiz; beti euskaraz”. Harro kontatu du aitonaren determinazioa, eta gerora Emparrek berak izandako ibilbidea kontutan hartuta, ez da zorakeria harengandik zer edo zer jaso zuela pentsatzea.

Ez diot inoiz euskara gehiegirik aditu Emparri; hitz solteak eta espresioak, bai. Aldiz, Hernanin elkartu izan garen batean, ulertu ulertzen duela iruditu izan zait. Galdua ote duen galdetu diot: “Ba, nahiko galduta, egia esan. Pentsa, etxean, aita gaztelar-kataluniarra zen. Gizajoa, Burgosen, bizi izan zen tokian, Sala de los Infantesen, han El catalan izan zen beti, eta Hernanin berriz El burgales. Eskerrak ez dudan inoiz alderdi horretan identitate arazorik izan, zeren, bestela, zoratzeko modukoa izango litzateke!”, egin du barre. Euskararen transmisio konplexua xehatzen jarraitu du atzetik: “Honekin esan nahi dut etxeke hizkuntza gaztelania izan zela, elkar ulertzeko batik bat. Baina gogoan

dut, adibidez, amarekin tranbia hartuta Donostiara medikutara joan eta joan-etorrian euskaraz hitz egin izana; amak beti egiten zidan euskaraz. Ondoren zer pasa zen? Esan bezala, etxeko hizkuntza gaztelania zen, eskolak ez zuen lagundu, noski, eta frankismo garai betean Euskal Herrian unibertsitate publikorik ez zegoenez –frankismoaren politika zuzena izan zen hau, badakizu, unibertsitateak pentsatzera bultzatzen baitu, eta hori ez da ona–, Madrilera joan behar izan nuen ikasketak egitera. Hor etete bat izan nuen, erabatekoa. Ondoren, oporretan eta abar itzultzen nintzenean –pentsa garai horretan sortu zela euskara batua–, nire iloba eta lehengusu gazteagoek uneoro zuzentzen zidaten nire euskara, oroitzen dut ‘hori ez da horrela esaten!’ botatzen zidatela, nik aurreko euskara hitz egiten bainuen. Beraz, jaso nuen gutxia, Madrilera eta ondoren Bartzelonara bizitzera joan izana, eta nekien hori zuzentzen zidatela, praktikoki guztia galdu nuen”.

2

Madrileko saltsara

Egun Bartzelonan bizi bada ere, Madril da, dudarik gabe, bere bizitza eta militantziaren hastapenak markatuko dituen hiria. Lau urte egin zituen bertan, karrera amaitu aurretik alde egin behar izan baitzuen. Jakin nahiko nuke hiriak emandako iritsiera hori nola bizi izan zuen. Gaur balitz bezala gogoratzen du: “Garai hartan, nire ahizpa zaharrena ezkontuta zegoen eta Madrilen bizi zen eta horrek asko erraztu zidan Madrilera joatea. Nolabait esateko, heldu aurretik ere banuelako etxea bertan”. Ez zuen ordea, denbora luzea igaro Madrilen. “Madrilekoa motza izan zen, izan ere, saltsera hutsa izateagatik iraun nuen han, geldirik ezin egoteagatik, zehazki frankismoaren aurka aritzeagatik, unibertsitatean Falange Espainolaren sindikatuaren ordezkaritzaaren aurka egiteagatik, azkenik, unibertsitatetik bota ninduten arte”.

Norbaitek pentsa lezake, garai eta egoera gogorak bizi izan zituela; Emparrek ordea, irribarre zabal batekin kontatzen du hori guztia, eta dramatismo apurrik gabe; gogoratze hutsak garaiko indarra itzuliko

balio bezala. Jarraitu egin du, azañaren nondik norakoak zehazten: “Botatzeaz gain, espediente bat ireki zidaten, eta, beraz, ezin nuen berriro ere Madrilen matrikula egin. Horrekin nahikoa ez, eta Bartzelonan matrikula egitea ere debekatu zidaten”. Pentsa liteke, istorioa eta ikasketak egiteko aukera hor amaituko litzaizkiokeela edonori, baina Emparrek ez zuen etsi: “Orduan, halako peleginazio bat hasi nuen unibertsitatez unibertsitate. Benetan bitxia izan zen, zeren, Ministerioan eskatu nituen gainontzeko unibertsitateek nire espezialitatean [Filologia Erromanikoa] zituzten ikasketa-planak, jakiteko ea zein egokitzen zitzaidan hobekien. Gogoratzen dut begiratu zidatela eta esan zidatela ‘baina zuk zertarako behar duzu hori guztia?’; pentsa zer zen frankismoa, hori bera eskatzea ere susmagarria zela! Niretzako orde, oinarrizkoa zen, eta tematu nintzela ikusita, esan zidaten: ‘Egin behar duzuna zera da, unibertsitate desberdinetako fakultate guztietara idatzi, Filologia Erromanikoko ikasketa-plana eskatuz’. Pentsatu nuen ‘hauek zoratuta daudel’, pentsa ezazu, ez dela gaur egun bezala: idazten, erantzunak jasotzen eta abar hasiz gero, ezingo nuke inoiz matrikulatu”.

Orduan, B planari ekin zion: “Entzuna nuen, nire aurretik, hilabete batzuk lehenago kanporatu zituzten ikaskideak Salamancara joanak zirela, eta pentsatu nuen, ‘ba ni ere Salamancara joan beharko naiz!’. Salamancara heldu nintzen eta hara non, niri, karrera amaitzeko bosgarren maila bakarrik geratzen zitzaidan arren, ia-ia lehenengo mailatik hasi behar nintzela esan zidaten”. Ez zuen hori berehalakoan onartuko, baina.

Beste askok bezala, ikasketak frankismoak erabat gurutzatuta bizi izan zituen Emparrek. Ederra da, bere biografia pertsonal guztian

zehar, gertakari historikoez hartzen duten lekua ikustea, izan ere, Filologia Erromaniko ikasketak amaitzeko borrokan zebilen artean, beste borroka bat gurutzatu baitzitzaion: “Hala nenbilela, zer zortea nirea, erreferendum famatuaren urtea iritsi zen*, eta oporrak eman zizkiguten, nor bere herrira bozkatzera joan zedin. Nik Hernanirako bidea hartu nuen, eta egin ohi nuen bezala, Salamancan elkartu ginen lagun kuadrillarekin ekin genion bidaiari, bidean abstentzioaren aldeko kanpaina eginez. Akorduan dut, Hernanira heldu, eta kale guztietan zehar abstentzioaren aldeko pegatinak jartzen ibili izana. Ni horretan nenbilela, berriro ere, zelako zortea nirea, aitari hauteskunde mahaian egotea tokatu zitzaion! Imajina ezazu egoera, ni etxean bozkatzera ez nintzela joango eta aita aguazilak bidaltzen, mesedez bozkatzera joateko eskatzen! Nik aguazilari argi esan nion ez nuela bozkatzeko inongo intentziorik, hark ondotxo zekien, noski, eta hala ere, jendea eta jendea bidaltzen zidan aitak, bozkatzera joateko eta joateko. Ez nintzen joan. Eta zer diren gauzak, kontaketa amaitu zenean, aita etorri zitzaidan, bozka eman nuela zioen paper batekin. Hala esan nion aitari: ‘Joder aita, zuk hau egin baduzu, zer ez ote zuten egingo beste tokietan!’ eta ordurako ondo bagenekien ere, ‘zer berme du erreferendum honek?’. Orduan, ulertu nuen aitak zergatik egin zuen, izan ere, bera erregimenekoa zen, tokatzen zen erregimenekoa, baina erregimenekoa finean, eta oso legea betetzekoa. Hala esan zidan: ‘Hau egin dut, ziurrenik leku askotan eskatuko dizutelako, izan dezazun’. Gajoak pentsatzen zuen, nonbait, gero eskatu egingo zidatela, eta ez zuen ni istiluetan sartzerik nahi, edo batek daki. Edonola ere, bozkatu ez nuen arren, bozkatu banu bezala izan zen. Hori ere bazen frankismoa”.

.....
* Estatuko Lege Organikoaren Erreferenduma. 1966.

Oporraldiaren ostean, ikasketak jarraitzera Salamancara itzuli ote zen galdetu diot. “Ez, hau eta gero, ez nintzen Salamancara itzuli, Oviedora joan nintzen, han baitzegoen nireari gehien egokitzen zitzaion plana, eta nire kabuz izan bazen ere, amaitu nituen ikasketak. Nire etxean, eta zehatzago esanda, nire aitak, ez zuen inoiz sinistu amaitu nuenik. Gainera, ez nintzenez inoiz titulua jasotzera joan, are gutxiago!”

Handik urte batzuetara, abortuak egiten zituzten klinika baten aurkako errepresioa zela-eta, Oviedora itzuli zen kide batekin, eta esan omen zuen: “Begira, hemen gaudenez, egoera baliatu eta titulua jasokodut!”, eta han omen zegoen, zokoaren zokoan. Hartu, eta aitari bidali omen zion, lasai gera zedin.

Hogeita gutxi urte zituela, jada Hernanin, Madrilen, Salamancan eta Oviedon ibilia zen. Azken hiritik nora joan zen galdetu diot. “Madrilera itzuli nintzen, eta bertan geratu ere, Franco hil zen arte. Lehenago, Letren Fakultatean, ni eta beste batzuen artean Organización Lenin sortua genuen. Lau ginen, literalki. Garai haietan hala izaten zen, zeren klandestinitatea zela-eta, erlatiboki erraza zen talde bat sortzea: batzea bera ilegala zen, beraz, lau batu eta sortu genuen. Brometan esaten ziguten: ‘Zuek? Taxi batean denak kabitzen zarete-eta!’”. Ohikoa duen barre artean gogoratu du. Izan ere, batzuetan, hari entzuten ari naizela, ahaztu egiten zait garaiaren gogortasuna, eta klandestinitatearen arriskua. Segidan, historiaren errepaso azkarra egin du: “Ondoren, antolakunde honetatik, estatuko beste batzuekin elkartzen hasi ginen eta Federación de Comunistas, FECO deitzen geniona sortu genuen. Eta denbora bat aurrerago, MC-a [Movimiento Comunista]”.

3

Damurik ez

Beste zerbaiti buruz ari ginela, kartzela aipatu du, pasadan, ohikoa duen dramatismotik gabeko tonuaz eta garrantzia berezirik eman gabe. Gelditzeko eskatu nahi diot: “Nola Martutenen? Kartzelan esan nahi duzu?”. Interes berezirik ez duen pasarte batean geldiarazi banu bezala eutsi dio: “Bai, bai, kartzelan. Nik uste dut Salamancaren ondoren izan zela, ez dut ondo oroitzen. Badakit Hernanitik kanpo bizi nintzela ordurako”. Begiradekin izan dugu elkarrizketa ondoren, berak, galdera ikur bat begiradan “jarraitzea nahi duzu?” galdegingo balit bezala, eta nik entusiasmozko “noski, bada!” batekin erantzunez.


Nire eskariei erantzunez, hala segitu du: “FEC-eko kideok bilera bat genuen ETA Berrirekin, erdi bidean, Burgosen. Elkartu berri ginen, garaian egin ohi zen bezala, pasahitzekin, egunkariekin eta abar, eta espaloitik gindoazela, elkartzeko leku baten bila, zas! Tipo batek aurreratu gintuen eta txaketa irekita zerbait erakutsi zigun. Nik, pentsatuz erlojuak saldu nahi zizkigun norbait zela-edo, hala erantzun

nion: ‘Ez, ez, ez dugu nahi’. Noski, nik nahi edo ez, ez zen saltzaile bat, baizik eta brigada politiko-sozialekoa bat, ‘sociales’ deitzen genienak”.

Burgosen atxilotu zituzten orduan, baina jakin nahi dut nola amaitu zuten Martutenen. Hala segitu du: “Ba, hasieran, Burgoseko komisaldegira eramán gintuzten eta oso arraro zeuden denak. Guk galdetzen genuen: ‘Baina zer pasa da? Hauek zer demontre!’, eta kontua da Meliton Manzanasen erailketa gertatu berri zela eta Salbuespen Egoera ezarrita zegoela. Orduan, autoetan sartu gintuzten, hiru emakume alde batetik, mutilak bestetik. Kideak oso izututa zeuden, batek esaten zuen: ‘Hauek bagaramatzate eta edozer egin dezakete gurekin, desagerrarazi, edo batek daki!’. Baina nik Burgos oso ondo ezagutzen nuen, izan ere gazteetan uda asko pasa bainituen bertan, eta segituan esan nien: ‘Ez arduratu, Donostiako errepidean goaz-eta’. Eta hain zuzen ere, Donostiara heldu ginen eta Gobernu Zibileko kalabozoetan eduki gintuzten. Galdeketetan denetik egon zen, denetik. Kolpea joan eta kolpea etorri, eta gainera, akusazio izugarriak egiten zizkiguten: Burgosko katedrala lehertu nahi izatea, Burgos eta Gipuzkoa barnebiltzen zituen eskualde militarreko kapitain generala akabatu nahi izatea... erokeriak, alegia”.

Ez du zehaztu zenbat denbora egon ziren atxilotuta. Nik ere ez diot galdetu, izan ere, segituan salto egin du pasarte hori amaitutzat emanez, eta hala bukatu du: “Eta handik, protokolo gehiegirik gabe, Martutenera eramán gintuzten. Han denbora gutxi egon ginen, oso gutxi, zeren atxilo zegoen kide baten gurasoek, akusazioez informatu, eta haiek kudeatu zituzten, nolabait, gure kontrako funtsezko ezer ez zegoela argi geratu arte. Hala, erlatiboki azkar atera ginen hartatik”.

Harri eta zur nauka kontatu didan pasarteaz azaltzeko erabili duen tonu ezaxolati eta arinak, eta halaxe bota diot: “Zu entzunda, badirudi borroka, gogorra ez, baizik ederra izan dela”. Segituan erantzun dit, irribarre zabalez: “Bai, bai, noski baietz! Argi geratzeko nahi dut: Niri gorputzak eskatu dit egin dudan guztia egitea! Horregatik gaiztotzen naute biktimismoek, zeren noski, gauza gogorrak egon dira, baina, egun dugun esperientzia izanda, atzera bueltatzerik banu (nahiz jakin ezinezkoa dela), ni oso gauza gutxitaz damutuko nintzateke, akaso, gauza bakar batez ere ez”.



Primeras Jornades de la Dona de Catalunya, 1976

Empar pineda. Gorputzak hala eskatua

4

Guztia zegoen hitz egiteko

Mugimendu Komunistan [hemendik aurrera MC] buru-belarri aritu zen hurrengo urteetan, horregatik egin zuen, orduan, bere bizitzan mugarria izango den hurrengo mugimendua estatuko geografian: “Orduan, Franco hil eta gutxira, MC antolakundearen behar politikoak zirela-eta, Kataluniara etorri nintzen. Hain zortekoa ni, 76ko maiatzean, hau da, iritsi eta oso gutxira, Primeras Jornades de la Dona de Catalunya* [Emakumearen

.....

* Emakumearen Kataluniako Lehen Jardunaldiak (katalanez, Jornades Catalanes de la Dona) 1976ko maiatzaren 27tik 30era egin zituzten, Bartzelonako Unibertsitateko paraninfoan; jardunaldi horiek hartzen dira bigarren olatuko mugimendu feminista katalanaren ernamuintzat (bigarren olatukoa deitzen zaio mugimendu horri, hartara XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran garatu zen mugimendu sufragistatik bereizteko). Jardunaldi haiek izan ziren, trantsizioaren garaian, hiritarren parte-hartze aktibora zabalik antolatu ziren lehen ekitaldietako bat, eta, bertan, eztabaida publiko eta ireki batean agerrarazi ziren emakumeen aldarrikapenak eta eskaerak, diktadura amaituz geroztik lehen aldiz.

Kataluniako Lehen Jardunaldiak] antolatu zirela. Eta hori, ba, sekulakoa izan zen! Feminismoaren suspertzea!”. Begirada leihora begira jarri du une batez, oroitzapenaz gozatu nahi balu bezala, eta tarte bat eman du hor, ez diot nik ere unea eten nahi. Ondoren, non gauden ohartuta bezala, zehaztasun eta datez betetako bere memoriari tiraka jarraitu du: “Hau guztia, UNESCOk 1975a ‘Emakumearen urtea’ izendatu ostean dator, are gehiago, jardunaldien prestakuntza “Amigos de las Naciones Unidas” izeneko lokal batean egin genuen. Nolabait ere, hura zen guztia antolatzeke aterki modukoa”. Baina xehetasun horiek ez dira garrantzitsuenak, eta “gatozen harira” batekin ekin dio izan zen hori goraipatzeari: “Jardunaldiak, pentsa, zer izan ziren! 3.000 emakume batu ginen, guztiaz, guzti-guztiaz hitz egiteko, zenaz eta ez zenaz, zerutik lurrerakoaz, guztiaz!”

Jakin nahi nuke nola bizi izan zuen, antolakunde misto batean aritzetik, emakumeez soilik osatutako antolakuntzara salto egitea. Hala dio: “Ba, saltoa izugarria izan zen, niretzako, argi eta garbi, mugarri bat izan zen. Hain da horrela, MCren barruan bertan, mistoa izanda ere, hainbat kide emakumezko eta nik, barne-mailan emakume bezala antolatzea erabaki genuela, momentu hartan gauza erabat ezohikoa zena”. Erakundeak nola hartu zuen galdetu diot, eta berak ez dio garrantzia handiegirik eman horri; gogoan du, ordea, beste herrialdeetako aurrekariak aztertu zituztela, kideei zer pasa zitekeen erakusteko: “Bai, gogoratzen dut esperientzia desberdinak jaso genituela beste antolakunde mistoetatik, haien burua Ezker Iraultzailea deitzen genionaren barruan zutenetatik. Zehazki, Italiako esperientzia bat jaso genuen, non erakundeko kide gizonak ez zuten onartu emakumeak haien kabuz biltzea, eta horrek erakundea bera zatitu omen zuen, eta,

azkenean, desagerrarazi. Ez zutenez onartu emakumeen egoera ez dela gizonena bezalakoa (ezta antolakunde iraultzaileetan ere), ondorioak ere ez zituzten neurtu. Orduan, esperientzia hori eskutan hartuta, askorako balio izan zigun, ez bakarrik haustura ekiditeko, baizik eta barne-mailan “Emakumeen Egitura” deitzen geniona sortzeko. Horrek zer esan nahi zuen? Erakunde mistoan militatzen genuela, baina baita gure egituren ere, alegia, antolakundearen barruan egon arren, espazio propioa zuen egitura ere bagenuela. Horrekin esan nahi dut ez ginela eszisio bat”. Eta ondoren, barre txiki batekin, hala errematatu du jokaldia: “Niri eta gainontzeko emakume kideei ederki baino hobeto etorri zitzaigula, alegia”.

Atzera bueltarik gabeko bide baten hasiera antzematen diot jardunaldi-oste horri, hain zuzen, militantzia feministan aurretik egiteko zuen bide guztiaren hasiera moduko bat, eta hala izan zen: “Ni, 1976ko maiatzeko jardunaldiak eta gero, Koordinadora Feminista deitzen genion horretako kide ere izaten hasi nintzen. Hori izan baitzen Kataluniako Jardunaldi Feministetan hartutako erabaki bat. Orduan, pentsa ezazu, Kataluniako MCko antolakunde mistoan, antolakunde horretako Emakumeen Egituran, eta Koordinadora Feministan...! Baina, halakoa zen gogoia, guztirako ematen baitzigun!”.

Berdintasun faltsuaren ideia indarrean zegoenean jaio eta hazitakoa naizela azpimarratu diot, alegia, kontatzen ari zaidan garai horietan lortutako guztiaren herentzian jaiotakoa. Zer ziren, baina, Franco hil osteko lehen urteetan feminismoak zituen aldarri eta borrokak? “Aurrean topatu genituen pentsa ezin daitekeen adina aldarrikapen. Hasi nahi duzun arlotik eta segi nahi duzunera, dena egiteko zegoen.

Adibidez, sexualitatearen arloan, lan-arloan, hezkuntzan, guztian, guztiguztian”. Barre artean gogoratzen du egiteko zegoen hori guztia: “Nik gogoan dut, jardunaldien ondorioak gure aldarrikapenez osatutako halako zerrenda bat zirela, oso luzea, baina batzuk gogoratzearren, gogoratzen naiz jardunaldiak pasa eta gutxira adulterioaren (oraindik zigortua baitzegoen) aurkako kanpaina* bat egin genuela. Ez da berez nahi genuela adulterioa zigor kodetik kentzea, noski baietz, baina agerian utzi nahi genuen, batez ere, hor ere zein desberdina zen emakume edo gizon izatea. Zeren emakume bati adulterio akusazioa egitea izugarri erraza zen, nahikoa zen gizon bati kaletik kasu egitearekin. Gizonak aldiz maitalearekin bizi behar zuen akusazioa onartzeko. Eta hala zen ia guztian, esaterako, emakumeok ia halabeharrez ezkondu behar izatearen aurkako aldarrikapenak ere egin genituen, baita ezinbestean gizonari ‘seme-alabak eman behar’ izatearen aurka ere. Izan ere, abiapuntua oso oinarritzkoa zen, kontuan izan emakumeen bizitza zaintzaile izatera, amatasunera eta etxeko lanak egitera bideratua zegoela guztiz eta erabat”. Elkarri begiratu eta barre egin dugu, mandatuak gehiegi aldatu ez direla altuan esan nahi ez bagenu bezala.

Azkenik, sexualitatea lantzearen horrekin zer esan nahi duen galdegin diot: “Ba oinarri-oinarrizko gauzak dirudite, baina esan egin behar ziren, alegia, esaten genuena zen emakumeen sexualitatea ez zela ez hasi ez amaitzen amatasunarekin, sexualitatea norberaren zerbait zela,

.....

* Adulterioa delitutzat jo zen 1978ko maiatzaren 26ra arte. Urte hartan ezabatu zuten Zigor Kodetik; gaur egungo demokraziaren hastapenetan eta Konstituzioa onartu zen urtean berean. Hori da historiaren bilakabidea. Lehen delitutzat jotako gauzek utzi egiten diote hala izateari. Adolfo Suarez presidentearen agintaldian izan zen; Justiziako ministroa, berriz, Landelino Lavilla zen.

plazera lortzea helburu zuena, emakumeena, ulertu nahi baita”. Berak bakarrik geldiune bat egin eta aipu txiki bat egin dit, ondoren betebetea helduko diogun gaiaren aperitibo gisa: “Eta gogoan dut, halaber, 1976ko jardunaldietan lesbianismoaz ere hitz egin genuela”.



Empar Pineda TVEn, lesbianismoaz hitz egiten

Empar pineda. Gorputzak hala eskatua

5

Goitik beherako lesbiana bat

Lesbianismoaren gaiari heltzera goazela, geldialdi bat egin dugu. Une batez, elkarrizketa ahaztu eta nigitik galdetu dit, kontatzeko zerbait. Beti iruditu izan zait zilegi elkarrizketatzaileari ere beretik zerbait eman dezan eskatzea. Kontatu diot 2000ko hamarkadan armairutik atera zen belaunaldikoa naizela ni. Parametro erlatiboetan, aurrekoek baina “errazago” izan genuenak, nolabait ere. Ez horregatik, ordea, parametro erabat errazetan. Batik bat, erreferente falta izugarria genuelako, eta ez bakarrik telesail, pelikula edo literaturan bakarrik, baizik eta baita geure eguneroko bizitza, kale eta herrietan ere. Ikerketa eta arkeologia lana zen geurea, susmoarena, kodifikatua, “hau ba ote da...?” eta mundu berri bat ezagutu eta konpartitzekoa ere bai. Horregatik, agian, ikerketa-lan horretan bilatu genituen gure aitzindariak, eta horregatik agian goraiatu genuen haien ausardia, eta baita pentsatu ere, zer-nolakoak biziko ote zituzten.

Bere berri ere hala izan nuela kontatu diot, jakin nuenean herrikidea nuela estatu-mailan erreferentea zen feminista lesbiana hori . Akaso horregatik jakin nahi nuen, xehetasunez, nola bizi izan zuen haren lesbianismoa, jakin asmoz zer zen 60ko hamarkadan armairutik ateratzea, eta ez hori bakarrik, zer zen norberaren lesbianismoa bera identifikatzea. Adi entzun dit, baina kontatzera doanak beste munduko garrantzirik ez balu bezala ere bai. Zuzenean galdetu diot ea Kataluniako garai horietan bera armairutik at ote zegoen jada. “Ez! Ke ba! Begira, gogoan dut koordinadorako batzuk Madrilerara gonbidatu gintuztela, zer eta lesbianismoaren aurrean Kataluniako Mugimendu Feministaren jarrera zein zen kontatzera. Eta bueno, nik azaldu nuen zein zen, eta hitzaldia amaitzean, gonbidatu gintuzten antolakundeko (FLHOC Frente de Liberación Homosexual de Castilla) batzuk inguratu zitzaizkidan, eta gauza da esaten didatela: ‘Zu zertaz zoaz? Zer da Kataluniako Mugimendu Feministak lesbianismoaz pentsatzen duenaz aritzea zu heteroa bazina bezala?’. Eta sartu zitzaidan halako lotsa bat...!’. Orduan galdetu diot : “Baina zuk jada bazenekien lesbiana zinela, ezta?” Eta atzera egin du istorioan: “Noski, zati hori saltatu dut! Goazen atzera: Ni Madrilerara joan nintzenean, filosofia fakultatean ikastera, 64az hitz egiten ari gara, nik jada 20 urte nituela, karteltxo bat ikusi nuen, izan ere, Sindikatu Demokratikoaren hauteskundeak baitziren. Eta han ikusten dut emakume baten izena, eta ondoan idatzita ‘puta’, ‘zorra’, ‘komunista’, ez dakit zer eta badakit zer gehiago. Eta esan nion neure buruari: ‘Uuuiii, nik tipa hau ezagutu egin behar dut!’. Orduan, total, ezagutu nuela eta lagunak egin ginela, eta gure bizitzaren inguruko gauzak eta abar kontatu eta gutxira, ba nik kontatzen diot, ba hori, zera, nik beti izan nuela lagun bat besteak baino lagunagoa zena. Eta esan zidan: ‘Begira, ahaztu zaitez lagunak baino lagunagoak diren

lagunez, zu zera zara, goitik beherako lesbiana bat!'. Eta aizu, ez dakizu zer nolako poza eman zidan! Sentitzen nuen horri izena jartzea, hain zuzen ere, emakumeak gustatzen zitzaizkidala, eta ordura arte ez nuela hori bera desira sexual bezala identifikatu...".

Betidanik sentitutako, baina identifikatu gabeko horri izena jartzeak emandako lasaitasunak eta ez larriak harritu bezainbeste poztu nau. Atzerago salto egiteko beharra sentitu dut, eta horregatik galdetu diot, ea txikitan eta gaztetan, Hernanin, gogoratzen ote duen neskak gustatu izana. Pentsatzen jardun du une batez, eta segidan bota dit: "Nik oroitzen dut, eskolara nindoanean, alemanetara, beti zegoela neskaren bat gustuko nuena, berekin egon nahi izaten nuela... Baina izenik jarri ezin nionez, ez nuen gaizki bizitzen".

Atzetik zuzen bota diot: "Mari-mutila al zinen?". Barre egin du: "Bai, bai, noski! Pentsa, mataderiaren atzean jolasten genuenean, ba ez dakit, orduan ohikoak ziren jolasetara, familietara, medikuetara... ni beti medikua nintzen, edo aita. Eta gero gogoan dut banuela lagun talde edo kuadrilla bat, denak mutilak zirenak eta ez dakizu nolako mari-mandona nintzen! Eta gainera, aita zinegotzia nuenez, dena nirea zen! Leokako iturria? Nirea. Labaderoa? Nirea. Den-dena. Eta a raya nituen, ez dakizu zer a raya! Horregatik diotsut ondo neramala".

Berriz ere, egungo nire ikuspegitik harritu egiten nauen tonua erabiltzen duelako akaso, esan diot ez dudala inoiz bere ahotan kontakizun dramatiko bat jaso bere lesbianismoarekiko bizipenei buruz. Segituan eta gogor erreakzionatu du: "Are gehiago, asko sumintzen nau nire adineko lesbianak edota apur bat gazteagoek askotan erabiltzen

duten kontakizunak: ‘Dena gaizki, oso gaizki...’ halako biktimismo batekin...! Eta sumintzen nau, zeren noski, ezkutatu egin behar ginen, bizitza bikoitza egin, baina aizu, geure bigarren bizitza horretan lesbiok ere oso ondo pasatzen genuen, bai ondo pasa ere!”.

Oraindik nabari diot hori bera kontatzean agerikoa duen irribarre bihurri hori, eta sinistu dut ondo pasatzearen hori, bai horixe! Hala, armairutik ateratzearen horri heldu diogu berriz: “Ba, FLHOC-ekoek esandakoak esan eta gero ere, armairuan jarraitu nuen denbora batez. Ni atera nintzen armairutik, lehenik, antolakundean; ondoren, Mugimendu Feministan, izan ere Kataluniako mugimenduak oso jarrera irekia baitzuen honen aurrean; eta horrek lagunduta, indarrak eman zizkidaten eta aurrera egin nuen. Hainbeste egin nuen aurrera, komunikabideek deitzen zigutenean lesbiana baten bila, ni joan ohi nintzela!”. Gure hizketaldira ekarri dut, hain famatua egin zen Interviuko elkarrizketa hura, non titularra honakoa zen: “Lesbiana porque sí”, elkarrizketa hau prestatzen ari naizen honetan, oraindik topatzea lortu ez dudana. Harro gogoratzen du titular hura oraindik, baina berak ere ez duela gordeta esan dit.

Ondoren gogora ekarri du 1977ko estatuko lehen manifestazio hura*, orduan Gay eta Lesbianen Askapenerako Jardunaldia deitzen zitzaiena. Emozioz eta harrotasunez betetzen da, hasi eta buka, Rambletatik amaierara arte nola eutsi zioten oroitzen.

.....

* 1997ko ekainak 26 : Gay Harrotasunaren eguna ospatzeko manifestaldia egin zuten, lehen aldiz, Bartzelonan. Ramblas pasealekuan barna joan ziren militante politiko mordo bat, ez bakarrik gayak eta lesbianak, eta grises zeritzon indar polizialaren errepresioa jasan zuten.

Tarte bat hartu dugu, besteak beste, Emparren mugikorra jo eta jo dabilelako; dei bati erantzun behar diola esan dit, inporta ez bazait. Sukalderako bidea hartu du. Egongelan geratu naiz bakarrik. Une batez, leiho zabaletik sartzen den argiari begira hipnotizatu naiz, eta egoeraren gozoak ere hartu nau, era bitxi batean, etxean sentitzen naiz, norbera gurutzatzen duten genealogiek ematen duten etxe horretan.

Itzuli denerako, behin Emparri entzun nion anekdota batekin akordatu naiz, eta hala bota diot: “Entzuna dut, askorentzat, Estatuko Lesbiana ere bazarela...”. Algara handi batekin erantzun dit: “Nola dakizu zuk hori?”, keinu bihurria egin diot, sorbaldak altxata: “Benga, kontadazu”. Ekin dio: “Behin pasa zitzaidan gauza bat da, Madrilen bizi nintzela, Cristina eta biok ardo bat hartzen ari ginen auzoan, gay batzuk zeramaten taberna batean; ez zen hertsiki anbienteko taberna, baina beti zegoen gure jendea. Ba, hantxe ginen ardo bat hartzen, eta, bat-batean, sartu dira bi neska gazte, eta ikusten dut nola egiten dion batek besteari keinu bat ukondoarekin, eta besteak: ‘Zer?’, eta berak: ‘Hori Espainiako lesbianen presidentea da’. Tori hori! Noski! Ni neu, lesbiana guztiena! Ez jada bakarrik lehen lesbiana, baizik eta guztien presidentea...! Zer-nolako barreak egin genituen...!’”.

Neska horien lekuan jarrita, honako hau bota diot: “Bueno, nik uste dut, gure belaunaldiarentzako, batez ere militante feminista eta lesbiana garenontzako, dudarik gabe esango nuke topatu dezakegun lehendabiziko erreferente dokumentatu eta publikoetako bat zarela”. Loreak jasotzeko inongo beharrik ez duenak bezala erantzun du, apal: “Zuk badiozu, hala izango da”. Eta aurrera segitu dugu.

Borroka feministaren hastapenekin egin bezala, galdetu nahi diot ea zein ziren borroka lesbikoaren aldarri eta beharrak. Berak esan du, nik aipatu aurretik, askotan lotzen direla LGTBI borrokak ezkontza-eskubidearekin, baina berak argi dauka hori ondorengo zerbait izan zela, azken kontu bat, beste lehentasun batzuk zituztela lesbianek: “Lehenengo gauza, eta funtsezkoena, ikusgaitasuna zen, eta zenbat kosta zitzaigun...! Bueno, eta gaur egun ere, agerikoa da lesbianen ikusgaitasuna gizonezko gayena baina askoz ere txikiagoa dela, ezta?”. Baietz esan diot. Segi egin du: “Baina ez zen hori bakarrik, bazeuden beste aldarri batzuk, esaterako, lanpostuan bereizkeriarik ez jasatea, eskoletan ez erakustea heterosexualitatea normala zela, eta bestea, berriz, anormala... Halako aldarri eta lanketa piloa genuen aurretik, eta ondoren horien artean ere bazegoen lesbianen bikoteak ere errekonozitzea, baina lehen urte haietan ez zen lehentasuna, inondik inora”.

Berak oso gogoan du noiz ikusi zuen lesbianen bikoteen aitortza horren beharra eta garrantzia: “Guk, Madrilén, Madrilgo Feminista Lesbianen Kolektiboa sortu genuen, eta bertan esperientzia oso tristea izan genuen. Kide baten bikotea Irlandara joan zen ingelesa ikastera, eta bertan, istripu batean hil zen. Bueno, ba heriotza gogorra izan bazen, hortik aurrerakoa esperientzia beldurgarria izan zen, zeren bat-batean bikotea inoiz existitu ez balitz bezala izan zen, zeren hil zenaren familiak ez zion ezer utzi, ez prozesuan parte hartzen ez oroitzapen materialik ere, ezer ere ez, ez zen inor. Orduan, hori gertatu eta gero, uste dut, ezkontza bera ez, baizik bikote bezala aitortza eskatzea ere aldarri bilakatu zela gudan”.

6

Nik ere abortatu dut

Aipatu dugun guztiaz gain, Empar Pineda zerbaitek egin badu ezagun, hain zuzen, abortatzeko eskubidearen borrokak egin du. Hala, lesbianismoaz aritzetik, halako buelta erdi eman, eta hain urruti ez dagoen borrokara egin dugu salto. Probokazioz galdetu diot: “Lesbiana bat abortatzeko eskubidea defendatzen...?”. Barre egin du, baina serio-serio bota atzetik: “Hau oso kurioa da, baina aldi berean, oso ohikoa. Leku denetan gertatzen da antzeko zerbait. Esaterako, abortu-eskubidearen aldeko borrokan, Latinoamerikan nengoela, borrokaren nukleo gogorrean, ia denak ziren lesbianak, denak ez baziren”. Hemen ere, sarri halaxe izan dela bota diot: gehienak ote ziren, ez dakidala, baina nik abortu-eskubidearen aldeko borroka lesbianaz beteta ezagutu izan dudala. Galdetu diot ea zergatik den hori bera. “Nik uste dut sexualitate askearen defentsarekin zerikusia handia duelako dela. Sexualitate askea, ‘bainarik’ gabe ulertuta, desiran oinarritua eta haurdun ez geratzeko bermeak dituen, ezta? Horrek agian eraman gintuen asko, edo ni behintzat bai, ez soilik abortu-eskubidea

defendatzera, baizik eta oso segidan, sexualitate askea defendatzera, baita lesbianona ere, baina baita, oso gertutik, heterosexualena ere. Beti sentitu izan ditut oso gertu”.

Horrek agian eraman zuen, aktibismoa ez ezik, ogibide ere izatea, Isadora Klinikari lan egiteraino. Hala dio: “Horixe esan behar nizun, nire lehen soldatapeko lana bertan izan zen. Asko ikasi nuen klinikan, beste hainbat osasun-zerbitzu eskaintzeaz gain, abortuaren gaia oinarritzkoa baitzen, pisu izugarria zuen”. Jakin nahi dut nola heldu zen bertan lan egitera. Segituan heldu dio: “Lehenago kontatu dizut nola joan nintzen lagun batekin unibertsitateko titulua jasotzera, ezta? Ba, emakume hori Marisa Castro zen. Ez dut oroitzen zehazki nola izan zen, baina egun batean, afaltzen edo dena delakoan ari ginen, eta kontatu zidan bera eta beste mediku batzuen artean klinika bat sortu nahi zutela, ez soilik abortuak egiten zituen, baizik eta beste osasun-prestazio batzuk eskaintzen zituen. Zergatik beste prestazioak? Ba, hara joaten ziren emakumeei zuzenean ‘abortu bat egitera zoaz’ leporatu ez ziezaiten. Eta hala esan zidan Marisa Castrok: ‘Nola gustatuko litzaidakeen, zu nirekin lan egitera etortzea, nire eskuin eskua izatea’, eta nik segituan erantzun nion: ‘Joatekotan, zure ezker esku bezala joango nintzateke’. Ni, ordura arte, antolakundearen liberatua nintzen, eta atzetik esan nion: ‘Ederki iruditzen zait!’ eta hara joan nintzen”.

Jakin nahi dut zer lan egiten zuen bertan. “Nik bertan egiten nuen lana, apur bat, orkestra-emakumearen lana zen. Denetik egiten nuen, emakumeekin hitz egitetik hasi, etortzen zirenean lasaitu, interbentzioaren ondoren hitz egin, telefonoa hartu, odol-poltsak hartzera joan, semenaren bila joan intseminazioren bat bazen, klinika

erakunde desberdinen aurrean ordezkatu, komunikabideen aurrean... Izan ere, Marisak klinika utzi zuen, lehenik udaletxeko zinegotzi izan zelako, eta ondoren Alderdi Komunistarekin diputatu, beraz, nire gain erori zen ordezkaritza”. Urte gogorrak ziren arren, pozarren gogoratzen ditu bertan bizitakoak: “Benetan esaten dizut, ni pozez zorutzen nengoen. Izan ere, lan polita zen, telefonoz emakume batekin hitz egiten nuen bakoitzean, abortuaz lehen aldiz hitz egingo banu bezala zen, informazioa ematen nien, nola funtzionatzen zuen, zein ziren aukerak... Eta, gaur egun, edozein emakumerekin honi buruz hitz egin behar banu, dudak dituelako edo dena delakoagatik, lehen egunean bezalaxe egingo nukeela badakit”.

Ziur Emparren hitzak entzundako askok ere gogoratzen dutela bera. Galdetu diot anekdotarik, une gogorrik, berezirik gogoratzen ote duen. Hala oroitu du: “Oroitzen dut behin, emakume bat artatzen ari nintzela, datuak hartzen eta abar, eta han hasi zela negar batean, erabat hautsita, eta oroitzen dut jaiki eta esan niola: ‘Zer pasatzen zaizu, lasai, ez baduzu argi, lasai, ez arduratu, etxera joan, pentsatu, hitz egin...’ eta esan zidan ezetz, oso argi zuela, baina kontua zela, pro-vida antolakunde bateko burua zela. Eta nik gainontzekoak bezala artatu nuen, noski, eta gogoan dut esan niola: ‘Lasai emakumea, denoi pasatzen zaigu, edonori pasa dakioke. Eta orain ulertu dezakezu nola hona etortzen diren emakumeak ez diren arinkieriaz etortzen, ‘ala! Abortatzera noa!’, esanez, kapritxo bat bezala. Ez, pentsatu egiten dute, asko pentsatu ere, eta bakoitzari dagozkion arrazoiak medio, erabaki bat hartzen dute, zuk bezalaxe’. Horrek asko inpaktatu ninduen”.

Jarraian galdetu diot: “Noski, zeren, abortu-eskubidearen aurkako mugimendua hortxe zegoen. Nolakoa zen zuen egunerokoa haiekin?”. Hala segitu du: “Etenik gabekoa. Egunero etortzen ziren, ate aurrean jartzen ziren, etortzen ziren emakumeak irainduz, haiek izutu nahian... Eta gure lana haiek defendatzera ateratzea zen, eta nola egiten genuen! Batzuetan, zer diren gauzak, batzuetan, hain zen jasangaitza, guk deitzen geniola sarri poliziari defenda gintzaten!”.

Izan ere, urte batzuk joanak ziren Felipe Gonzalezen, 1985eko legetik... “Bai, bai, pentsa, 1993a zen, baina indartsu zeuden. Eta oso gogorra zen, batez ere, etortzen ziren emakumeengatik, eta babeserako oso errekurtsio mugatuak genituelako, ezin genien joan zitezen besterik esan. Oroitzen dut, behin, klinikara heldu eta bulegoan harri bat bota zutela gauez, leihoa apurtuz. Salatu genuen, baina gaurdaino”.

Jakin nahidut, hainbeste borrokaren ostean, nola bizitzen Gallardonon legearen proposamena, eta baita abortatzeko eskubidearen borrokaren berpiztea. Alderdi desberdinetatik aztertu du: “Batetik, Gallardon dago, hau da, irudi bat ematen duena, esan dezagun gizon liberalarena, ez gainontzeko PPko kideak bezain Pitecamtropusarena. Eta hau izugarri engainagarria zen, zeren bildots larruazala kendu zuenean, abortuarekin kasu, ikusi genuen nor zen benetan. Beraz, hau esan daiteke ona izan zela, PPren ustezko liberal itxuraren atzean zegoena ikusteko, benetan emakumeoi zegozkigun eskubideen aurrean zuten jarrera ikusteko. Bestetik, berriro ere kaleak hartu genituen, eta hori ere ona izan zen. Zeren, oso zaila da abortatu duen emakume batek bere ahotsa altxatzea, komunikabideetan eta abar, esan nahi dut. Baina gizartean egin diren inkesta guztietan baietz ateratzen da, alegia, abortu-eskubidearen alde

dagoela gizartearen gehiengoa, despenalizaziotik harago gainera. Beraz, horri ere heldu behar diogu, ez dezaten esan jendartearen iritzia beste bat dela”.



Aborto eskubidearen aldeko protesta bat. 1983

Empar pineda. Gorputzak hala eskatua

7

Jaso egin behar da

Deskantsu bat egin dugu, elkarrizketa eten ordeztu, elkarrizketatzaile-elkarrizketatu rolak berriro aldatu dituenak. Hain zuzen, galdetzen hasi zait zer egiten dudan nik, elkarrizketa hau nondik atera den, zer idazten dudana... Eta une hori aprobetxatuz, itzuli egin diot galdera. Izan ere, jakin baitakit berak ere asko idatzi izan duela, sarri modu kolektiboan sinatuta. Esan diot: “Zuk ere publikazio pila duzu...”, barre egin du, gauzei garrantzia kentzeko duen erraztasun berezko horrekin, segidan amua bota diot: “Zure kazetari edo idazle alderdi hori, bokazioa, lana edo militantzia izan da?”. Azkenarekin egin du baiezkora buruaz: “Militantzia purua izan da, bai, besterik ez. Gogoan dut Nikaragutatik bueltan idatzi nuela idatzi nuen lehen gauza, ‘La revolución nicaragüense’, eta ondoren, guk, zeinak geure burua hainbeste maite dugun, kolektiboan egin genuen dena, hain zuzen Lesbiana Feministen Kolektibotik, kontatu nahi genuen horretatik eta elkarren artean lanak banatuta”.

Baina idatzi ez ezik, besteek idatz zezaten plazak sortzea ere izan da Emparren egitekoa, hala, historikoa zen bilduma sortu zuten: “Hablan las mujeres”. Hala oroitzen du: “Kolekzio hau, MCren lehen Revolucion eta ondoren Talasa izena zuen argitaletxe barruan sortu genuen. Hor, ni zuzendari ibili nintzen, hainbat liburu editatzen, baina ez nuen inoiz idatzi”.

Iritzigintzari dagokionez ere, feminismoaren aniztasuna balioan jartze aldera “Otras voces feministas” sortu zuten: “Beharrak bultzatuta sortu genuen hori, izan ere, Bartzelonako emakume epaile baten kontrako jarrera zabaldu zen, gure ustez oso modu bidegabean, hain zuzen, feminismoaren sektore oso bidebakar eta sektario batetik, zeintzuk gizarteratzen ziren Feminismo bakarraren izenean. Orduan, emakume anitzak elkartu, eta iritzi-korronte berri eta zabala osatzea izan genuen helburu”.

Gaurkoari helduta, baita memoriari ere, galdetu diot ea garrantzitsua dela uste duen, oraindik orain, emakume desberdinen ahots, bizitza eta bizipenak jasotzea. Di-da heldu dio: “Izugarri garrantzitsua da. Lekukotasunik utzi ezean, lekukotasun idatzirik, geure abentura hau belaunaldi abentura bat bezala ahaztu daiteke, hortxe geratzen dena. Horregatik uste dut dela berebizikoa idatzizko lekukotzak jasotzea, egindako eta bizitakoarena. Bai banaka, bai taldean, bai korronteka, edo talde-koordinazioan, berdin du, baina jaso egin behar da”.

8

Abenduak 26 fundazioa

Nekatuta nabari dut, izan ere, luze daramagu hizketan. Azken galdera egin nahi diodala esan diodanean, halaxe egin dugu tratua. Gaurko egunari begira jarri gara; esan bezala, azken urteak Bartzelonan egin ditu, itsasoaren eta klimaren beharrez inguratu omen dira bertara. “Zahartzeko hiri ederra da” dio.

Hala ere, ezinezkoa egiten zait Empar Pineda erretiroa kontenplatiboki hartzen duen emakume bat bezala irudikatzea. Badakit, Bartzelonara etorri aurreko urteetan, Abenduak 26 Fundazioa sortu zuela Madrilén hainbat kiderekin. “Ba, begira, ekimen hau hiru lagunek abiatu genuen, bi gayk eta hementxe duzun honek. Bai, izan ere, oso arduratuta ginen zahartzearekin, hain zuzen gay, lesbiana eta transen zahartzearekin. Zer zetorkigun? Orduan pentsatu genuen zerbait sortzea, arazoari irteera material bat eman ziezaiokeena. Hainbat bide hartu genituen: batetik, jende ezagunaren babes biltzea; bestetik, plan konkretuak egitea espazio edo materialtasun bat emateko buruan

genuenari, baina, batez ere, horren aurretik egin genuena egoeraren ikerketa bat izan zen. Jakin nahi genuen, esaterako, zer gertatzen ari zen egungo zahar-erresidentzietan, eta topatu genuen egoera izugarri bat. Jendeak hainbeste urte eta gero armairura bueltatu behar izatea, irainak jasotzea, izugarrizko irainak, urte pila bat batera zeramatzen bikoteak banatu behar izatea... Halako egoerak ziren, biloak puntan jartzen zizkizutenak. Orduan, irteera materiala esaten dizudanean, zuen izena zuela ere, gay eta lesbiana zaharrontzako harrera-leku bat sortzea zegoen. Kuriosoa da, baita ere, eta hausnartzekoa, behar handiena zutenak gay zaharrak zirela, zeren lesbianek, nolabait, beti aurkitzen zituzten zaintza gehiago, ez kasualitatez, baizik sareak sortu zituztelako bizitzan zehar. Gizonezkoekin, ordea, ez zen hori gertatzen, eta jasotzen zuten tratua ‘maritxu!’ oihu batetik gora zihoana zen”.

Ekimen hura abian jarrita etorri zen Bartzelonara, baina atzean utzi zuen, proiektuak bere bidea egin zezan: “Egia esan, ez nion zentzu handirik ikusten egoteagatik egoteari, ez zait inoiz gustatu lorontzi bat bezala inon egotea, eta distantziak ekintzarako aukerarik uzten ez zidanez, babesa mantenduz, ekimenetik atera nintzen”.

9

Aitortza keinuak

Bila jarrita, erraz aurkitzen dira Empar Pinedaren ibilbideari aitortza egiten dioten sari andana. Berak, nola ez, ez die garrantzia berezirik ematen sariei beren horretan, harriduraz jaso omen du emandako sari bakoitza. Ordea, ilusio bereziarekin gogoratzen ditu haiek jasotzeko uneak, inguruak, beroak. “Lehenengo jaso nuena, esango nuke Zilarrezko Gehitu Saria izan zela, 2012an, eta egia esan behar badizut, izugarri harritu ninduen. Gehituko jendea ezagutzen nuen, eta hori bai ez nuela espero”.

Urte berean etorri zen Hernaniar Bikaina saria, urtero Xalaparta Elkartek ematen duena. Hala gogoratzen du: “Hernanikoa ja, apoteosia izan zen. Pentsatzea gastronomia-elkarte batek, duen esanahiarekin, saria niri ematea...! Pentsatzen duzu: ‘Joer, nola aldatu diren gauzak!’. Edo behintzat nola aldatu behar izan duten, hain zuzen, halako elkarte batek planteatu dezan, ez ni bezalako norbaiti saria ematea, baizik eta eman zidaten arrazoiengatik ematea saria. Alegia, ez zen ezkutatu

lesbianismoa, sexu-askapenaren aldeko borroka... Ez, ez; argi adierazi zen askatasun horren eta emakumeon eskubideen alde nire bizitzan zehar egindako borrokagatik ematen zidatela. Esan zidatenean, zera pentsatu nuen benetan: ‘Ezin dut sinetsi, neure burua atximurkatu behar dut, hau ez da egia’. Eta noski, entrega eta ekitaldia bera oso hunkigarriak izan ziren”.

Elkarteaz gain, jakin nahi dut ea nola bizi duen Hernanik berekiko duen errekonozimendua, sariekin, presentziarekin, elkarrizketa honekin berarekin... Duda egin du: “Badakizu zer pasatzen den? Ba, kontraesanez beteta bizi dudala. Batetik, gustuko dut, zertarako esan kontrakorik, uste dut ulertze batetik edo elkar-ulertze eta aitortze batetik datorrela, eta hori izugarria da. Baina, beste alde batetik, nola esan, ba, esajerazio bat iruditzen zait! Ez dut uste hainbeste merezi dudarik, ez hainbeste istorio sortzeraino. Alegia, hau nire bizitza izan da, bai, baina ez zait beste munduko ezer iruditzen, alegia, egin dudan guztia, ba... gorputzak eskatzen zidalako egin dudala! Baina bueno, Hernanin izateak badu alde hunkigarri hori, zeren kanpoan urte askoan ibili arren, oso hernaniarra sentitzen naiz, benetan! Agian, gehiegi errekonozitutako hernaniarra!”



Berdintasun Kontseiluan urteak daramatzagu oroimen historikoaren berreskurapen lanetan, zehazki Hernaniko emakumeen inguruko historia jaso, landu eta herritarren esku jartzeko asmotan. Sarri, historia ofizialean emakumeak ikusezin bihurtu gaituzte, baina jakin badakigu alor ezberdinetan ekarpen ugari egin dituzten andreak izan direla gure artean. Horietako bat da hain zuzen ere, Empar Pineda Erdozia. Argitalpen honek, Emparren bizitzan sakontzeko aukera ezin hobe eskaintzen digu, bere bizi ibilbidea eta aurrera eramandako borrokak ezagutzeko.

Ezinbestekoa da gure herriko emakumeak eta euren ekarpenak ezagutzea eta ondorengoei transmititzea; alegia, historiak isildu dituen emakumeak argitara ateratzea.

Berdintasun Kontseilua




berdintasun kontseilua